PRESIDENTE DE LA GMF

GMF-KO LEHENDAKARIA



Koldo Sansinenea

Gipuzkoa ha sido y es cuna y cantera de destacados montañeros y alpinistas. Afortunadamente, en nuestro territorio, al igual que la gastronomía, la afición por la montaña, el amor y el respeto a la naturaleza nos fueron inculcados por nuestros aitas y amas desde *txikis*, y, lejos de ser aficiones minoritarias, tuvieron una gran participación en la adolescencia. Luego, unos siguieron la tradición de transmitir a sus hijos los valores positivos de una actividad física e intelectual en relación con la montaña. Otros, en los clubes, se dedicaron al desarrollo y divulgación de la actividad en equipo. Otros alcanzaron metas de gran prestigio en alta montaña, escalada, esquí, espeleología, divulgación y ciencia, etc. Son tiempos cambiantes y diferentes, hay que tener imaginación para hacer atractiva la montaña a los más jóvenes, y en ello estamos.

Los datos de Gipuzkoa hablan por sí solos: cerca de 16 000 federados el pasado año. Es una cifra (sin parangón en el estado) para estar contentos, porque refleja el gran arraigo popular de la montaña y un sentido de la responsabilidad. En la Federación somos conscientes de que son más los que cada fin de semana van al monte, aquí o al Pirineo, a disfrutar y no se federan. Será normal tener las espaldas cubiertas ante cualquier incidencia. Hay que recordar que la administración cuenta con medios materiales y humanos para rescatar a cualquier montañero, pero puede cobrar (según el caso) una tasa de gastos de rescate y no estando federado puede resultar muy caro el ahorrarse la licencia. Estas reflexiones sirven lo mismo para los territorios hermanos y es responsabilidad de las Federaciones Territoriales caminar con objetivos comunes y evitar localismos inútiles.

Sentimos preocupación, mucha preocupación, por el estado del medio ambiente en Gipuzkoa, sobre todo en los montes. Los valles de un territorio reducido y topográficamente complicado como el nuestro están cubiertos de infraestructuras viarias, viviendas e industria; afortunadamente, los ríos se han ido recuperando de los salvajes vertidos de antaño. Ya hemos pagado un precio muy alto por una de las rentas *per cápita* más altas del estado: tener un paisaje degradado e intervenido. Aizkorri-Zaraia, Izarraiz-Arno, Ernio, Aiako Harria y Aralar son montañas modestas, pero de una gran significación para montañeros y naturalistas. También tienen su impronta humana, desde hace milenios, a través de actividades ganaderas y forestales, pero quizás menos agresivas que las que vemos en los valles. Fino y frágil equilibrio el que existe en estas montañas entre todos los intereses que confluyen y deben coexistir, roto el pasado año en Aralar. Retroceso porque la administración competente, lejos de buscar, consensuar y acercar posturas, como había hecho en épocas anteriores, dejó cuando no evitó, una confrontación y unos daños irreversibles.

Finalmente, queremos agradecer a la Diputación Foral de Gipuzkoa el apoyo económico y humano a las actividades que realizan los montañeros en los clubes, en cooperación con la Gipuzkoako Mendizale Federazioa.

Gipuzkoa punta-puntako mendizaleen sehaska eta harrobi izan da betidanik eta da gaur egun ere. Zorionez, gastronomia bezalako beste alor batzuekin gertatzen den moduan, gure herrialdean oso hedatua dago mendizaletasuna; izan ere, gurasoengandik jaso genituen naturarekiko errespetua eta maitasuna eta nerabezaroan gutako askok egin genion tira zaletasun horri, jarduera minoritarioa izatetik urrun. Ondoren, batzuek euren seme-alabei transmititu zieten jarduera honen balore positibo sorta, izan jarduera fisikoari dagokionez zein arlo intelektualari begira. Beste batzuek, bestalde, jarduera horri talde-lanean bultzada emateari ekin zioten, euren klubetan. Punta-puntara iritsi zenik ere bada, goi mendian, eskaladan, eskian, espeleologian, dibulgazioan zein beste hamaika alorretan. Garai aldakorrak bizi ditugu egun, ordea, eta irudimena ezinbestekoa da mendia gazteenei modu erakargarrian helarazteko. Horretan dihardugu.

Gipuzkoako datuei erreparatuz, iaz 16000 federatu izan zirela ikusiko dugu. Estatuan parekorik ez duen kopurua da, eta pozik egoteko moduan gaude, herrialdean mendizaletasuna sendo erroturik dagoen seinale. Erantzunkizun handia jartzen du kopuruak, hala ere, gure bizkar gainean. Geroz eta gehiago dira asteburua iristearekin batera mendiaz gozatzera abiatzen diren federatu gabeak, hemengo mendietara zein Pirinioetara. Edozein gertakariren aurrean bizkarra babestuta izateak ohikoa izan behar luke. Kontuan hartu behar da administrazioak edozein mendizale erreskatatzeko baliabide materialak zein giza baliabideak eskura dauzkala, baina kasuaren arabera erreskateak sorrarazitako gastuak kobra ditzakeela. Federaturik ez dagoen mendizale batentzat gastu hauek haundiak izan daitezke beharbada. Hausnarketa hau egitea baliagarria da gainerako herrialdeetan ere eta guztion betebeharra da helburu amankomunekin aurrera egitea lokalismo inozoak baztertuz.

Kezka handia sorrarazten digu Gipuzkoako ingurugiroaren egoerak, mendi eremuan batez ere. Gurea bezalako herrialde txiki eta orografikoki bihurri honen haranak azpiegiturez lepo daude, baita etxebizitzez eta industri guneez lepo ere. Zorionez, gaur egun ez ditugu errekak garai batean bezainbeste kutsatzen. Garesti ordaindu dugu, ordea, estatuko errenta altueneko lurraldea izatea: paisaia dexente hondatuta daukagu tamalez. Aizkorri-Zaraia, Izarraiz-Arno, Ernio, Aiako Harria eta Aralar mendimultzo apalak dira, baina arras esanguratsuak mendizale eta naturzaleontzat. Giza alderditik begira ere garrantzitsuak dira oso mendilerro hauek, milurteetan barrena baso hustiakuntza zein azienda jarduna aurrera eraman baitira eremuotan, haranetan aurrera eramandako jardunekin alderatuz bigunagoak izan diren arren naturaren kaltetzeari erreparatuz. Oreka zaila da mendilerrootan, modu askotako interesek bat egiten baitute bertan, Aralar mendilerroan iaz hautsi zen oreka, hain zuzen. Administrazioaren aldetik atzerapauso nabarmena eman zen, topagune amankomunak bilatu beharrean liskarrari bide eman baitzion, atzera bueltarik ez duten kalteak sorraraziz.

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza eskertu nahi genuke, ekonomikoa zein pertsonala, Gipuzkoako Mendi Federazioarekin elkarlanean klubetan lanean ari direnen jarduna bideratuz.